

Euskaltzaindia eta euskararen arautzea

(The Basque Language Academy and the Regulation of the Basque Language)

Goenaga, Patxi
Euskaltzaindia
San Antonio, 41
01005 Gasteiz

BIBLID [0212-7016 (2000), 45: 1; 11-42]

Artikulu honetan Euskaltzaindiaren izaerari eta lanari gainbegiratu bat ematen zaio. Euskaltzaindiaren zeregina normaltze bidean den hizkuntza bat batzea da, euskaldun guztiontzat ballagarri izango den tresna osatzea. Eginkizun hori nola gauzatu den eta nola gauzatzeko ari den erakusteko, lehenbizi. Euskaltzaindiaren sorrerari buruzko zenbait xehetasun eskaintzen dira. Ondoren, hasierako lanen berri ematen da laburkiro. Gero, Arantzazuko bilera mugarriztat hartuta, ordutik honako lanen balorazio bat egiten da: hiztegia, gramatika eta atlasa dira bereziki aipatzen direnak. Azkenik, gaurko gizartearen eskariak aztertzen dira eta erronka hauen aurrean Euskaltzaindiak nola erantzuten duen azaltzen.

Giltz-Hitzak: Euskaltzaindia. Euskara batua. Iker Saila. Jagon Saila. Hiztegi gintza. Euskalkiak. Onomastika. Literatura.

En el presente artículo se da un repaso a la naturaleza de Euskaltzaindia y al trabajo que ésta desarrolla. El cometido de Euskaltzaindia es la unificación de una lengua en proceso de normalización, la formación de una herramienta que sirva para todos los vascos. Para mostrar cómo se ha realizado esta tarea y cómo se realiza hoy en día, en primer lugar se ofrecen algunas precisiones sobre el nacimiento de Euskaltzaindia. A continuación, se informa brevemente sobre sus primeros trabajos. Después, tomando como punto de partida la reunión de Arantzazu, se hace una valoración de los trabajos realizados desde entonces hasta ahora; se mencionan en particular el diccionario, la gramática y el atlas. Finalmente, se examinan las demandas de la sociedad actual y se explica la manera en que Euskaltzaindia responde a estos retos.

Palabras Clave: Euskaltzaindia. Euskara unificado. Sección Iker. Sección Jagon. Lexicografía. Dialectos. Onomástica. Literatura.

Dans cet article on fait une révision de la nature d'Euskaltzaindia et du travail qu'elle fournit. L'objectif d'Euskaltzaindia est d'unifier une langue en processus de normalisation, la formation d'un outil qui soit utile à tous les basques. Pour montrer comment cette tâche a été réalisée et comment elle est réalisée aujourd'hui, on présente quelques précisions sur la naissance d'Euskaltzaindia. Ensuite, on donne de brèves informations sur ses premiers travaux. Puis, en prenant comme point de départ la réunion d'Arantzazu, on fait une évaluation des travaux réalisés à partir de cette réunion jusqu'à maintenant; on mentionne, en particulier, le dictionnaire, la grammaire et l'atlas. Enfin, on examine les demandes de la société actuelle et l'on explique la manière dont Euskaltzaindia répond à ces défis.

Mots Clés: Euskaltzaindia. Euskara unifié. Section Iker. Section Jagon. Lexicographie. Dialectes. Onomastique. Littérature.

* Irudien iturria: Euskaltzaindiako Argazki Artxiboa.

1. HISTORIA APUR BAT

Euskaltzaindiaren sorrera eta esparrua

Bere jarduera Euskal Herri osoan hedatua duen erakunde bakanetakoa dugu Euskaltzaindia: Bilbon du egoitza nagusia eta ordezkartzak gainerako lurraldeetan (Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean). Euskara delarik haren izateko arrazoia, bidezkoa da euskararen lurralde osora zabaltzea bere lana.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen babespean sortu bazen ere, berehala gainditu zituen sortze honetatik legezkiekeen muga politiko-administraziozkoak. Izan ere, Akademiak sortze beretik izan zituen ateak zabalik Iparraldeko euskaldunentzat, argi baitzuen euskalki guztiek izan behar zutela presentzia euskararen ikerketa eta sustapena helburu zituen erakunde batek.


Bizkaiko Foru Diputazioak 1918ko urtarrilaren 25ean Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek egindako proposamena onartu zuen, alegia, beste hiru diputazioekin batera Akademia sortzea eta beren laguntzaz eustea (ik. *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 1919ko urtarrilaren 14koa). Uda hartarako Oñatin Eusko Ikaskuntzaren I Batzarra egiteko deia egina zegoenez, Diputazioek Batzarrari eskatu zioten proiektua. Hizkuntza atalaren buru zen Domingo Agirre idazleak (1864-1920) sailkideei euskara ikertu eta jagoteko erakunde bat sortzeari buruz iritzia eskatu zien. Erantzuna, aho batez, baiezkoa izan zen. Jarduera eta helburuak ere zedarritu zizkioten erakundeari: euskararen ikerketa eta sustapena. Batzorde bat ere izendatu zen Akademiaren arautegi aurreproiektua lantzeko. Proposamenak jasotzeko epe bat ireki zen eta ondoren aurreproiektu bat aurkeztu zen, Erraimun Olabidek (1869-1942) idatzia. Honi buruzko oharrak egiteko beste epe baten ondoren, 1918ko azaroan onartua izan zen proiektua (ik. *Euskera* 1920, 42 eta hurr.) eta lau diputazioei helarazi zitzaizen onarrez: Gipuzkoakoak apirilaren 11n onartu zuen, Bizkaikoak maiatzaren 5ean, Arabakoak, irailaren 2an eta Nafarroakoak, irailaren 3an. Sortze-agiria *Euskera*-n (1920, 47-48) argitaratu zen, Julian Elorza Eusko Ikaskuntzaren buruak, eta Angel Apraiz idazkariak sinatua.

Lehen euskaltzainak

Onartutako arautegiak hamabiko kopurua ezarri zuen. Hauetako lau Oñatiko Batzarrean bertan izendatu ziren: Resurrección M^a de Azkue (1864-1951), Arturo Campion (1854-1937), Luis Eleizalde (1873-1923) eta Julio Urquijo (1871-1950). 1919ko irailaren 21ean Gipuzkoako Diputazioaren jauregian egindako batzar berezi batean hautatuak izan ziren beste zortzi kide-

ak: Domingo Agirre, J. Blaise Adema (Gratien Adema 'Zalduby'-ren iloba), Jose Agerre (1889-1962), Pierre Broussain (1859-1920), Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939), Erramun Intzagarai (1876-1947), Pierre Lhande (1877-1957) eta Erraimun Olabide (1869-1942).

Ademak eta Agerrek izendapenari uko egin ziotenez eta Agirre eta Broussain hil zirenez, Euskaltzaindiak beste honako hauek izendatu zituen: Seber Altube (1879-1963), Georges Lacombe (1879-1947), Martin Landerretche (1842-1930) eta Damaso Intza (1886-1986).



Euskaltzaindiaren lehen ikurra.

Ospe handiko zenbait euskalari atzerritar ere oheretako euskaltzain izendatu zituen Euskaltzaindiak: Hugo Schuchardt (1842-1927) alemana, Julien Vinson (1843-1926) frantsesa eta Ch. C. Uhlenbeck (1866-1950) holandarra. Euskaltzain urgazle izendatu zituen, berriz, besteak beste, honako hizkuntzalari hauek: R. Menéndez Pidal (1869-1968) espainola, Edward Spencer Dodgson (1857-1922) ingelesa, Theodor Linschmann, Herman Urtel (1873-1926) eta Heinrich Winkler (1848-

1930) alemaniarra eta Henri Gavel (1878-1959) frantsesa (ik. *Euskera* 1920, 14).

Kopuru hau handituz joan zen denborarekin. 1920ko lehen Araudiaren ondoren, berriak argitaratu ziren 1954an. Hemen euskaltzainen kopurua hemezortziraino handitu zen. 1972an, berriz, kopuru hori hogeita lauraino zabaldu zen.

Euskaltzaindiaren antolamendua: Iker saila eta Jagon saila

Euskaltzaindiak ezarriak dituen helburuak honako hauek ditugu:

1. Euskararen gramatika legeak ikertzea eta azaltzea.
2. Hizkuntza eta Literatura hizkeraren langintzarako gomendioak eta arauak ematea.

3. Hizkuntzaren erabilera ezberdinetako hiztegia bildu eta egokiro sistematizatzea, dagozkion hiztegi orokorrak eta bereziak burutu eta argitaratzea, eta, era berean, Hizkuntza Atlasa eta Onomastika Izendegiak.

4. Hiztegia, gramatika, grafia, literatura hizketa eta ahoskera alorretan hizkera batura heltzeko lan egitea.

5. Euskararen erabilera aintzinatzea eta sustatzea, horretarako dagozkion gizarte eragileekin batera behar diren mota guztietako harremanak ugalduz.

6. Hizkuntzaren eskubideak zaintzea, horretarako euskal hiztunen hizkuntza eskubideak jagonez, bai euskara erabiltzeko tenorean, bai eta erabilera hori zuzena izan dadin.

7. Gizarte maila eta eremu orotako adierazpide eta lanabesa izan dadin, hizkuntzaren gaitze prozesuan lan egitea.

8. Literatur eta ikas lehiaketak eragitea.

9. Filologia eta linguistikako ikastetak sustatzea, horretarako bilgune izanik, legozkiokeen biltzar, jardunaldi, bilera eta harremanak bideratuz.

10. Euskarari dagozkionetan instituzio aholku-emaille ofiziala denez, agiriak eta irizpide eta diktamenak ematea.

Helburu hauek betetzeko, bi arlotan dauka banatua Euskaltzaindiak bere jarduera: batetik euskara bera ikertzea. Hau da *Iker sailari* egozten zaion zeregina. Bestetik euskara sustatzea, erabilera zabaltzea, hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta hiztunen eskubideak zaintzea. Hau *Jagon sailaren* egitekoa dugu. Iker sailean biltzen dira ikerketan diharduten batzordeak, hiztegegintza, gramatika, onomastika, dialektologia, literatura eta abar aztertzeko sortuak. Jagon sailean, bi azpibatzerde eratu ditu berrikitan Euskaltzaindiak: bata, corpusaz ariko dena (hizkuntzaren kalitateaz, arauen zabalkundeaz eta abarrez arduratuko dena) eta hizkuntzaren sustapenez ariko dena bestea.

Euskaltzaindia sortu zen unetik beretik saiatu da goian aipatutako eginkizun hauek betetzen. Jagon sailari dagokionez, adibidez, hizkuntza hedatzen saiatu da. Garai batean bertsolari txapelketak berak antolatzen zituen, irakasleendako ikastaroak emateaz ere arduratzen zen. Euskarazko tituluak ere eman ditu duela urte batzuk arte. Kontua, ordea, da denborarekin premia berriak sortzen direla eta garai bateko eginkizunak beste batzuen eskuetara pasatzen direla. Euskaltzaindia garaian garaiko eskakizunei erantzuten saiatu da eta saiaturen da. Eginkizun berriek lan egiteko modu berriak ere eska-

tzen dituzte maiz eta horiei ez die Akademiak muzin egiten. Eta eginkizun berriek eskatzen dituzten bitartekoak eskuratzen ere saiatzen da. Argi dago garai bateko beharrak eta oraingoak oso desberdinak direla. Horregatik, Akademiaren sortzaile eta babesle nagusi diren Herri aginteengandik behar den finantzabidea lortzen ere ahalegintzen da. Izan ere, horrelakoetan ohi den bezala, bitartekoak sekula ez dira izaten aski gauzatu nahi liratekeen proiektuetarako.

Jagon sailetik bideratzen da, halaber, euskaldunaren hizkuntza-eskubideen defentsa. Hemen ere gauzak asko aldatu dira, bistan denez. Garai batean ez bezala, orain hizkuntza ofiziala dugu euskara, Euskal Herriaren parte batean behintzat. Zernahi gisaz, horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiak zenbaitetan eskubide hauen alde atera beharra izaten ez duenik. Hori ere Euskaltzaindiaren egitekoa da, dudarik gabe.

Euskaltzaindiaren hasierako lanak

Euskaltzaindiak bere buruari ezarritako betebeharren artean honako hauek jasotzen ziren: ortografia bateratua finkatzea, maileguei mugak ezartzea, eta hizkuntza modernotzea eta literatura-hizkuntza batu baten alde lan egitea, lexikoan, sintaxian eta grafian.

Lehendabizi hartutako neurrietako bat ortografia sistema desberdinen artean bateratu bat prestatzea izan zen (*Euskera* 1920, 64).

Maileguei mugak jartzea eta hizkuntzaren modernotzea dela eta, Euskaltzaindiak tentuz jokatzera erabaki zuen. Garbizalekeriaren kalteak agerian zeuden eta idazle multzo batek, Eusko Ikaskuntzaren bitartez, Euskaltzaindiari esku hartzea eskatu zion eta behar ziren hitz berriak sor zitzala. Akademiak, ordea, Urquijoren eta Lacomberen irizpideari jarraituz, uste izan zuen hitz berriak sortzea ez zela beren lana, hiztunena eta idazleena baizik (*Euskera* 1930, 49).

Literaturan erabiltzen ziren euskalki desberdinen artean beste bat osatzea, bakarra, denentzat balio izateko modukoa, hori zailago gertatu zen. Oñatiko batzarrean Eleizalde arazo larri hau agerian jarri zuen eta, hizkuntzari etorkizunik opa izatekotan, irtenbide baten beharra aldarrikatu, (ik. Eleizalde 1919, 428 eta hurr.). Akademiak bi laguni, Campioni eta Broussaini, eskatu zien gai honi buruzko txostena. Hauek 1922an aurkeztu zuten beren "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera". Txostenaren arabera, arazoa Euskaltzaindiak duen larriena zen eta konponbidea, geroko utzi ezinezkoa. Horrenbestez, batzorde berezi bat eratzea eskatzen zuten. Txosten honek bazterrak ez ezik kontzientziak ere harrotu zituen. Batzarrak antolatu ziren, inkestak egin, etab. 1922ko *Euskera*

aldizkarian hainbat lan argitara eman zen kontu honetaz. Baina batasunaren aldeko sutsua zen Broussain-en heriotzarekin, eta Julio Urquijoren eta Menéndez Pidalen adierazpenengatik, hizkuntza artifizial bat egitearen arriskuak azpimarratzen baitzituzten, giroa hoztu egin zen eta Euskaltzaindiak pentsatu zuen hobe zela gauzak bere horretan uztea, arineketan ibili gabe. Euskalaritza ez zegoen behar bezain garatua eta euskaldunak berak ere, gehienak baserri giroko jendea, ez zeudekeen behar bezain prestatuak presaka eta dekretu bidez egindako batasun baterako. Hala ere, batasunaren kezakak bizirik dirau. Azkuek bere “gipuzkera osotua” aldarrikatzen du, gipuzkeran oinarritua eta beste euskalkietako ekarpenekin aberastua (ik. *Euskera* 1934 eta 1935). Azkueren proposamen honek, ordea, ez zuen zor litzaiokeen arrakastarik izan.

Bestalde, Azkuek bere *Morfología Vasca* lan garrantzitsuari ekiten dio. Lan honen atalak Euskaltzaindiaren bileretan irakurri ziren eta beste kideen ekarpenez hobetu. (*Euskera* 1931, 87-206; 1933, 197-233; 1934, 5-231)

Egoera nolakoa zen ezagutzeko eta batasungintza bideratzen laguntzeko tresna egokia zelakoan, garai hartan bideratu zen *Erizkizundi Irukoitza* delakoa ere. Galdesorta hau Azkuek proposatu zuen.

Hiztegi mailan beste eginkizun aipagarri bat ere hartu zuen bere gain Euskaltzaindiak, Espainiera-Euskara Hiztegia, alegia. Hau Azkuek 1905-1906 urteetan argitaraturiko Hiztegiaren bigarren parte gisa planteatu zen.

Euskera aldizkariaren lehen aroan lan ugari eman zuten argitara euskaltzainek (Altubek, J. B. Eguzkitzak, Damaso Intzak, Orixek, Gerhard Bähr-ek,...) dela gramatikaz, dialektologiaz eta beste hainbat hizkuntza arloz. Urquijok eta Lacombe ere lan ugari eman zituzten argitara sasoi honetan *RIEV*-en.

Zientzia lan horiez gainera, Euskaltzaindiak literatura sariak ere sortu zituen. Atzerriko unibertsitateetara hizkuntzalari gazteak ikasketak egitera bidaltzeko bekak ere sortu zituen. Eskoletan euskarari zor zitzaion lekua aldarrikatu beharra ere izan zuen. Euskararen erabilera sustatzea ere bere eginkizunetako bat baitzen.

1936ko gerrak eta honen ondoko egoerak, Europako gerra tartean zela, eragin izugarria izan zuen Akademiaren bizitzan. Kontrako haizea zuen euskarak eta, baita Euskaltzaindiak ere, ondorioz. Akademia ez zen debekatua izan, baina hurbiletik zaindua aurkitzen zen, lanerako aukera handiegirik gabe. Euskaltzain batzuek atzerriko bidea hartu beharra izan zuten. Egoera horretan zenbait urtez bilerarik egin gabe egon behar izan zuen Euskaltzaindiak. Azkue izan zen, Bilboko Erribera kaleko egoitza ilunean lanean jarraitu zuen bakarra, horrela su sakratua gordeaz, nolabait.



1927. Orixe, Elissalde, Altube, Urkixo, R. Olabide, Eguzkitza, Etxegarai, Azkue, Lacombe.

1941ean “Junta de Cultura de Vizcaya” delakoak, Areilza, Merino Urrutia eta Igartua jaunen bitartez, Akademia biziberritzeko eskaria egiten dio Azkueri. Garai zailak ziren. 1936ko euskaltzainetatik batzuk hilak ziren, beste batzuk atzerrian, eta beste batzuek, Iparraldekoek esaterako, zailtasunak zituzten bilkuretara etortzeko. 1941ean eta 1942an euskaltzain izendatu zituzten Ignazio Maria Etxaide, Nazario Oleaga, Aingeru Irigarai eta Federiko Krutwig. Azkue zaharrak Federiko Krutwig (1921-1998) gaztearengan aurkitu zuen Erakundeari bultzada berria emateko behar zuen laguntzailea. Euskaltzaindia biziberritzeko plan bat eskatu zitzaion Krutwig-i. Honek euskaltzainen kopurua handitzea proposatzen du: hamabitik hemezortzira. Horrela, euskaltzain berriak izendatu ziren (R. Lafon Bordeleko unibertsitateko irakaslea, P. Lafitte gramatikalaria, Louis Dassance Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakaria edo Manuel Lekuona, Francoren erregimenak erbesteratua, Juan Gorostiaga, Luis Villasante eta Luis Mitxelena, euskararen batasungintzan egundoko garrantzia izango dutenak gerora), eta, apurka-apurka, gerrak ezarritako tuneletik irteten hasten da Erakundea.

1953a, hain zuzen, garrantzi handiko urtea izan zen Euskaltzaindiaren historian. *Euskera* aldizkaria argitaratzeko baimena eskuratzen da atzera eta berehala hasten dira antolatzen hainbat bilkura eta batzar euskarari buruz eta euskararen arazoez. Lehenbizikoa Arantzazun izan zen, 1956an. 1958an Bilbon; 1959an, Eibarren; 1961ean Donostian; 1963an Arantzazun; 1964an Loiolan, etab. Parte hartzea gero eta ugariagoa gertatzen da. Seinale hizkuntzaren ardura zabaltzen ari dela.

Euskaltzaindiak hizkuntzaren normaltzea ekarri duen bezala, Erakundea bera ere normalduz joan da. Euskal Autonomia Estatutuak (ik. 6. artikulua) Euskaltzaindiarentzat aldarrikatzen du euskara gaietarako aholkularitza ofiziala. Nafarroako Euskararen Foru Legeak ere gauza bera adierazten du (ik. 3. art.). Bestalde, 573/1976, otsailaren 26ko Errege Dekretuak Euskaltzaindia aitortzen du eta aurrerantzean “Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia” izena izango duela adierazten. Gaur Euskaltzaindiak indarrean du Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Diputazioekin hitzarmen bat, Akademiaren proiektuak eta eguneroko lana eta hauen finantzabidea ziurtatzen dituena. Frantzia “Onura Publikoko” izatea aitortzen zaio.

2. EUSKALTZAINDIA ETA EUSKARA ESTANDARRA

Euskararen batasuna hasiera-hasierako gaia da Euskaltzaindian. 1920. urtean A. Campionen eta P. Broussainen txostena aurkeztu zen, non euskara batuaren oinarritzat gipuzkera nahiz lapurtera, edo bien arteko nahaste bat proposatzen zen. Gipuzkeraren alde lerratzen ziren beste inora baino gehiago, hala ere. Txosten honen ondorioz zenbait bilera antolatu ziren, baina argi handirik ez zen atera handik. Adibidez, Azkuek, ondorioak ateratzen hasita, jarrera orokorragoa proposatzen zuen, gipuzkerara hurbiltzea iradokitzen bazuen ere. Kontua da Akademiak ez zuela erabaki zehatzik hartu, *Erizkizundi Irukoitza* delakoa bultzatzea baizik. Galdeketa hau 1921ean banatu zen eta helburua euskalkien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak zehaztea zen. A. M^a Etxaidek dioenez, (Etxaide 1984, 32), ez dago argi zenbaterainoko eragina izan zuen euskararen normalizazioan.

1968an Akademiak, 50. urteurrena ospatzeko, batzarra egiten du Arantzazun. Batzar funtsezkoa Akademiarentzat, euskararen batasuna hartu baitzen gaitzat. Hemen jarriko dira gaur euskara batutzat edo estandartzat ezagutzen dugun horren oinarriak. Urte honetatik aurrera aldi emankorra hasten da Euskaltzaindiarentzat, ordutik hona Akademia etengabe ari izan baita euskara normaltzeko, arautzeko, ahaleginean.

Hasiera gogorra eta nahasia izan zen: bi talde elkarren kontrako ageri ziren eta ez zen erraz denen gustuko zerbait eskaintzea. Zernahi gisaz, ortogafiaren arazoak hainbat kalapita eta eztabaida sortu bazuen ere, hartu ziren erabakiek, ordukoek eta geroagokoek, idazleen eta euskaltzaleen onarpena lortu zuten. Gaur esan daiteke Euskaltzaindiaren konpromisoari esker, euskara batua atzerarik ez duen bide bat dela.

Batzar honetan jarri zen abian euskara batua. Berrogeita hamargarren urtean lortu zuen Euskaltzaindiak bere izateko arrazoia den bateratzea martxan jartzea. 1968ko urte hori garrantzi handiko urtea da, hortaz,

Euskaltzaindiaren historian eta, baita, nola ez, euskararenean ere. Baina urtea ez ezik gizon baten izena ere aipatu behar da: Koldo Mitxelena, hain zuzen, berau izan baitzen, egiazki, euskara batuaren aita. Zuen autoritategatik eta euskara eta euskal literatura inork ez bezala ezagutzen zituelako, Euskaltzaindiak hizkuntzalari errenteriarrari eskatu zion txostena. Bestalde, idazle gazteek, euskara batuaren premia gehien sentitzen zutenak izanik, hitz eman zuten Mitxelena irizpideak onartuko zituztela.

Mitxelena rentzat euskara batasun bidean jartzea hil ala biziko kontua zen:

“Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiakoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenek batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura “ederrean” baino areago.” (Mitxelena 1968, 972)

Lehenbizi axaleko kontuetan egin behar zen batasuna. Gero, gai zailagoetara iristeko. Lehenbizi, ortografia batu behar zen. Ondoren, antzinako euskal-hitzen formak erabaki behar ziren. Gero, hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma erabaki behar zen, izenaren eta aditzaren morfologia ondoren, eta azkenik, joskera.

Mitxelena planean erdiko euskalkietan jartzen dira begiak. Funtsean gipuzkeraren eta nafarreraren arteko zerbait eskaintzen zuen.



1968. Arantzazuko Biltzarra.

Plan hau zuhurtziaz gainezka ageri da, batzuek horrela ikusi ez bazuten ere. Istiluak izan ziren, jakina den bezala, *h* letra zela eta, batez ere. Baina Euskaltzaindiak, ekaitza gorabehera, zenbait batzorde izendatu zituen eta presa handiena zuten erabakiak hartzen joan zen: ortografia, deklinabidea, adizjokoa, erakusleen forma, etab.

Zortzi urte geroago, honela baloratzen zuen Mitxelenak egindako lana:

“Zortzi urte igaro ondoan, ez dut uste, oro har, eginahalaren arrakasta uka daitekeenik. Tartekoa naizenez, ofiziala edo, nolabait esan, den batu era (*batu*-ko hobe oraingoz *batua* baino), harrera txarrik izan ez duena bestalde, alde batera utzita, harrigarria da, kazetaritzan adibidez, gero eta nabariago den batasuna, are elkarren kontrako diren aldizkarietan ere. Ez dira oztopo guztiak gainditu, ez eta gutxiago ere, baina prosa arruntaren mailan gero eta xeheagoak dira berez-kuntzak, zenbait handiagoa izanagatik.” (Mitxelena 1978c, 1021)

Hamar urteren buruan egindako lana baloratu nahi izan zuen Euskaltzaindiak. Bergaran 1978an egindako biltzarrean Mitxelena honela mintzo zen:

“Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean, gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua. Inolazko damurik nabaitzen ez dudala esango baldin banu, ez nuke gezurrik esango. Euskaltzaindiak hartu zuen noraezean hartu behar zuen erabakia, artean mila arrazoi edo atxakia zirela medio (lotsa gaiztoa, zeresanen beldurra, bake-itxurak gorde nahia bakerik ez zen lekuan...) hartu ez zuena. Erabakirik onena hartu zuen, Euskal Herriari, euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea” (Mitxelena 1978b, 985)

Bergarako biltzarrak Euskaltzaindiaren proposamenak zehazteko balio izan zuen eta, orobat, bere garaian hartutako bidea bide ona zela ziurtatzeko. Leioan 1994an egindako biltzarrean, Akademiaren 75. urteurrena ospatzeko egin zenean, estandarizatzeko prozesuak indar berria hartu zuen: aditz alokutiboaren formak onartze bidean ezarri ziren, hainbat gramatika arau ere onartu ziren, etab.

Euskaltzaindiak euskara batua dela eta ezarritako helburuak hein handi batean beteak dira. Euskara batuari esker euskara idatziak edozein kultur esparrutan sartzea lortu du. Euskaldunon artean elkar aditzea errazago egin du. Hizkuntza modernotzea lortu da, hizkuntzari prestigioa ematea. Egindako lanari esker, idatzizko adierazpide egokia dugu orain euskaldun guztiok esku artean. Baina oraindik ere gelditzen zaigun bidea luzea da: gramatikazko kontu ugari daude oraindik erantzun zain; hiztegi kontuetan zer esanik ez, edo onomastikaren arloan... Horregatik, Euskaltzaindiaren arautze lana oraindik ere beharrezko gertatzen da, euskara edozertarako eta edonon erabiltzeko tresna izatea nahi badugu.

3. EUSKALTZAINDIAREN PROIEKTU NAGUSIAK

3.1. Hiztegi gintza

Hiztegi gintza bere-berea du Euskaltzaindiak hasieratik beretik. Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* delakoaren jarraipen izan nahi zuen hiztegi bati ekin zion bere garaiari Euskaltzaindiak. Hiztegi hau erdara-euskara motakoa zen. Lan honi ekiteko asmoa behin eta berriro agertu zuen Euskaltzaindiak eta gerra aurretik eskuartean izan zuen lan hori.

Gure garaietatik hurbilago, eta euskara batuaren itzalpean bezala eta batasungintzak sortutako giroan, hainbat hiztegi eta hitz-zerrenda kaleratu ziren Euskaltzaindiaren eskutik: *Batasunerako hiztegia* (1968); *Merkatalgo hiztegia* (1973); *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* (1975); *Matematika hiztegia* (1978) etab.

Bestalde, hiztegi gintzaz, hitz eraketaz eta, oro har lexiko berrikuntzaz, maiz aritu da Euskaltzaindia, horretarako batzorde berriak ere osatuz. Hiztegia betidanik izan da Euskaltzaindiaren *nortasun marka*, nolabait esateko. Mitxelenak aitortzen duenez,

“hiztegia zela bide jakin genuen Euskaltzaindia bazela. Gerra arte, izan ere, Euskaltzaindiaren berriak, labur baino laburrago, egunkarietan agertu ohi ziren hilabetero edo ia hilabetero. Eta hor ageri ohi zen beti Hiztegiarekikoa: lana aurrera zihoala, honetaz edo hartaz izan zela eztabaida, eta abar. Hor dabil, noski, oraindik orduan burutu gabe utzi zen lana. Gezurra badirudi ere, *erdal-euskal* hiztegia da. Euskaltzaindiaren asmoa, beraz, erdarazko hitz polit-dotoreak antzeko euskal hitz polit-dotoreekin ematea zen eta, egia esan, hori berori zen jende euskaltzalearen gogoia. Gogo hori bizirik dagoela orain ere egingo nuke.” (Mitxelena 1987, 127).

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Hizkuntzaren normalizaziorako hiztegia ezinbesteko zutabea da eta Euskaltzaindiak, behin batasunaren bidean aurrera egitea erabakiz gero, nahitaezko ikusi zuen arlo honi seriozki heltzea. Eta pentsatu zuena izan zen euskal tradizioa bilduko zuen hiztegi bat osatzea. Gero, honen gainean eraiki litezke bestelako hiztegiak. Mitxelenak asmatutako *Orotariko Euskal Hiztegia* ez da erdara-euskara hiztegia. Erdara erabiltzen du, baina hizkuntza laguntzaile gisa. Honetarako bi arrazoi ikusten ditu Mitxelenak:

“errazago delako hitzak itzultzea bakoitzaren zer-nolakoa azalpen luze eta aspergarrien bitartez ematea baino eta, bigarren, komeni delako erdaldunek ere hiztegi sarrera izatea. Halaz guztiz, euskararen ukituren bat premia izango dute hiztegia barren-lanean saiatu nahi badute. Adibideak, eta testurik gehiena adibide hutsa da, euskaraz daude. Egileen itzulpenak bakarrik, Oihenarterenak esaterako, edota jatorrizko testua euskarara iraulia izan denean.” (Mitxelena 1987, 127)

Hiztegi honen helburua euskararen corpus tradizionala biltzea da,aldi eta alde guztietako altxor lexikoa biltzea eta sistematizatzea. Jakina, hizkuntza bizi deino ez da sekula hiztegi oso beterik izango. Hiztegia osatzeko bildu den corpusa zatika eta atalka jasoa dago. Eta testua zenbat eta zaharrago, orduan eta osoago. Ahozkoiei dagokienez,

“Azkuek eta dakartzatenez gainera, gerok bilduak, han eta hemen, sartu ditugu –dio Mitxelenak–. Nahi genuke hitzak noiz agertzen zaizkigun azaldu, gehitzen ala urritzen ari diren, ahaztuak ote diruditen. Horretarako, berezkuntza zehatza egin dugu a) hiztegien eta b) testuen artean, bi gauza esaten baitituzte maizegi. Nagusitasuna, noski, azkenekook dute” (Mitxelena 1987, 128)

Ez da hiztegi arauemailea. Hots: ez du erakusten euskal hitzen arteko aukerak nola egin, baina hautabiderako oinarriak bai eskaintzen ditu. Horrela, biltzen ditu beharrezko diren datu geografiko eta historikoak, eta autore desberdinen balorazioa egiten du literatur tradizioa zein den ikusi ahal izateko moduan.

Ez da hiztegi etimologiko bat ere, zenbait hitzen jatorriari buruzko xehetasunak jasotzen dituen arren, batez ere kasu eztabaidagarriak direnean edo hitzaren historia osatzeko behar diren kate-mailak ongi oinarrituak direnean. Gai honetaz, hona Mitxelenaren hitz umoretsu eta zentzuzkoak:

“Etimologia ere agertzen da zenbaitetan, bide errazetik lor daitekeenean. Nolanahi ere, ez dugu burrukarik nahi hori dela medio, eta sesio-bidetik ihesi ibili gara beti. Jakina da, halaz guztiz, usteen eskualdean mugitu behar dela horrela-koetan, nahiz eta laburbeharrez erabiltzen den hizkera arrazoiak eskatuko lukeen baino baikorragoa izan. Hori ez da, ordea, guk sortu dugun usarioa, edozeinek erabiltzen duena baizik. Aski du bada irakurleak kanpoan gelditu diren *agian*, *behar bada* eta antzekoak sartzeari premiazko den lekuetan.” (Mitxelena 1987, 129).

Ahal den neurrian, hitzak noiz agertuak diren, zaharkituak dauden ala galbidean diren eta abar esaten du *Hiztegi* honek.

Orain arte hamabi liburuki argitaratu dira (10.000 orrialdetik gora) eta beste lau daude iragarriak. (1986an Mitxelenak 8/10 inguru izan zitezkeela iragartzen zuen). Hamabigarren liburukiak *maka-oalketan* bitarteko hitzak biltzen ditu. *Hiztegi* honen oinarrian dagoen materiala, berriz, honela osatua dago: 300 bat liburu, 1970. urte artekoak, 40.000 orrialde inguru osatzen dutenak. Hemen biltzen da gure literatura klasiko nagusia. Horretaz gain, lexikografoen lana ere bildua dago: Landuchio, Micoleta, Pouvreau, Urte, Larramendi, Añibarro, Azkue etab. Testu mota desberdinak biltzen ditu, era orekatu batean. Helburua, esan bezala, euskararen hiztegi historiko bat eskaintzea da.

Proiektu hau Euskaltzaindiak eskuartean duen garrantzitsuena izanik, ulertzekoa da baliabideen aldetik ere berau izatea pisurik handiena duena. Mitxelenak hasi bazuen ere, horrelako lan bat nekez buru daiteke taldean ez bada. Hain zuzen, zortzi lankideren artean burutzen ari da Ibon Sarasolaren gidaritzia eta ardurapean. Bestalde, hainbeste testurekin lan egiteko nahitaezko izan da informatikaren laguntzaz baliatzea. Hasierako datubasea Wang formatoan eraiki zen, helburu horretarako berariaz egindako programa batekin. Gero, denbora aurrera joan ahala, azpiegitura informatikoak ere egokitu beharra izan da. Hain zuzen, 1999an hasi eta 2000n burutu den migratzeari esker gaurko formato estandarrekin lan egiten ahal du ekipoak.

Euskal lexikografiarako eta ikasketetarako obra honek duen garrantzia begien bistakoa da. Hiztegiaren “Atariko oharra” delakoan honela dio Sarasolak:

“Puntu bat aipatzen zuen batez ere (Mitxelenak): gure literatur tradizioaren azterketak izan behar lukeela batasunaren –bereziki hiztegi-batasunaren– orapiloa askatzeko ihardunbidean erabili beharko genukeen irizpide nagusia; orobat azken urteotan pairatzen ari garen gaztelaniaren eragin erabat neurritz gaineakoari aurre egiteko lanabes egokiena. Jakina denez, eragin horren ondorioz gertatzen ari den gure tradizioaren etete edo bestelakotzea zen Koldok azken urteotan barnean zeraman kezka nagusietako bat” (OEH, I, IX-X orr.).

HIZTEGI BATUA

Hiztegi gintza arloan, eta batasunari begira, Euskaltzaindiak duen beste egitasmo garrantzizko bat dugu *Hiztegi Batua*. Lan honi ekiteko erabakia Euskaltzaindiak 1991ean hartu zuen (ik. *Eusker* 1991-3, 1091-1145). 1992an irizpideak eta metodologia finkatu ziren eta 1993an ekin zioten euskaltzainek zerrendak aztertzeari. 2000.eko martxoan eman zitzaion azken onarpena lehenbiziko idatzaldiari.

Bi corpus handitan oinarritzen da hiztegi hau, batetik *OEH*-ren corpora eta bestetik *EEBS* (Egungo Euskararen Bilketa Sistemakoa). Azken hau *UZEI*-ren laguntzarekin gauzatu da eta 1900-1996 bitarteko testu argitaratuen lagin batek osatua da (ik. *Sagarna* 1989). Bide batez, esan dezadan Euskaltzaindiaren eta *UZEI*-ren artean sinatutako hitzarmenari esker, 2000. urtearen amaierarako ikerlariak eta euskara lanbide dutenek eskura izanzen dutela corpus honen lehenbiziko emaitza.

Hiztegi Batuak ohiko hiztegiaren batasun premiari erantzun nahi dio. Lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia da batez ere, hitzen forma egokia ematea du helburu. Batasun bidean ari garelarik, hori da lehenbizi ebatzi beharreko kontua, hitzen forma. Gero, esanahia eta abar finkatu beharko dira. Dena dela, esan dezagun *hiztegi* hau ez dela forma soilean gelditzen.

Hitz askoren kategoria ere ematen da: aditzen kasuan, beti, eta gainerako hitzetan, joserka argitzeko edo zehazteko ongi datorrenean. Bestelako informazioa ere ematen da: hitzaren maila (jasoa, lagunartekoa, literarioa, ...), forma adierazkorra den, edo zaharkitua den, esaterako. Sinonimoak eta antonimoak ere ematen dira. Maiz, hitz baten adiera desberdinak jasotzen dira eta hauek argitzeko adibideak ere eskaintzen dira.

Lehen idatzaldi honetan gure literatura tradizioan ongi finkatutako hitzak jaso dira, eta orobat azken hogeita hamar urteotako testuetan agertzen direnak ere, ongi osatuak badira eta premia bati erantzuteko egokiak direnean.

Euskaltzaindiaren batasunagintzaren barruan kokatu behar da *hiztegi* hau. Alde horretatik, forma bat hautatzerakoan, bi irizpide nagusik gidatu dute hautaketa: a) tradizio idatziko eta egungo erabilera. *Orotariko Euskal Hiztegia*-k ematen digu tradizioaren berri. EEBS delakoak, gaurko euskararen berri ematen digu; eta b) alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobestea. Horrela, mailegu berrietan, nazioarteko formen alde egiten du *Hiztegi Batua*. Horrelakorik ezean, Iparraldeko eta Heogaldekoentzat onargarri gertatzen direnei eman zaie lehentasuna. Forma bakarra eskaintzea ezina gertatu denean, forma lehiakideak eskaini dira, kasuan kasuko argibideak emanaz. Horrela eratu da *Hiztegi Batua*.

Hiztegian bildu diren hitzetan Euskaltzaindiaren iritzia jasotzen da. Zenbait forma gaitzetsirik ematen dira, eta hauen ondoan euskara baturako zuzentzat eman dena ezartzen da. Beste batzuetan, eskaintzen den bikotea ez da forma gaitzetsia*/forma zuzena, baizik forma mugatua (euskalki mailara, adibidez)/forma hobetsia. Adibidez, “eguzten Bizk. h. asteazken”. Baina “ejerzito* e. armada, gudaroste”. Jakina, beste hitz asko eta asko ere badira euskaraz, zerrendan ageri ez arren. Honek esan nahi du hitz horiek ez daudela ez gaitzetsiak, ez onartuak. Batzuetan, hitz jakin bat zerrendaratzeko eragozpenen bat izan da, eta gauzak hobeki aztertzeke utzi da bigarren itzulirako. Euskaltzaindiak ez du arinkeriaz jokatu nahi. Dena dela, hiztegi honek beste bigarren aldi bat ere izango du eta, besteren bat ere bai aurrerago. Hortaz, ulergarria da zenbait hitz oraingo honetan kanpora gelditzea.

Batasunak egindako bidean forma baten dialektaltasunaz halako adostasun bat lortu denean (*barri* edo *izandu*-ren kasuan, adibidez), ez dira aintzat hartu hiztegian. Beste batzuetan, berriz, esan den bezala, bikoteka eskaintzen dira hitzak: *erraztun*/eraztun*, adibidez. Baina kontua da gerta daitezkeela zerrendan forma bakarra eskaintzea: *ateri*, adibidez, baina ez *aterri*. Hemen ere *eraztun*-ekin bezala joka zitezkeen, baina beste askotan, forma zuzenaren ondoan egon daitezkeen aldaera desberdin guztiak jasotzerik ez dago.

Hitz asko, zein euskalkitakoak diren adierazten duten ikurrez (Bizk., Ipar., Naf., Gip., etab.) horniturik ageri dira, inolako hobespen ez gaitzespen markarik gabe. Horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiak hitz horiek baztertu egiten dituenik. Alderantziz: hiztegiratzeak esan nahi du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak hitz horiek erabiltzera, horrela euskaldun guztion ondare komun izatera irits daitezen.

Batasungintzak arazo asko ditu, hiztegi mailan ere. Horiei aurre egiten saiatu da Euskaltzaindia eta, ezarritako irizpideekin jokatzuz, hogeit mila inguru hitzeko zerrenda eskaini du. Hala ere, zenbait kasutan ez da gauza izan batasuna eskaintzeko. Batzuetan bitasuna aurkitzen dugu *Hiztegi Batuan*. Adibidez, zenbait hitzek *Heg.* marka daramate. Honek esan nahi du hitz hori ezin ulertuzkoa dela gaztelaniaz jakin ezean. Horrelakoek maiz beste bat dute, bikotea osatuaz, *Ipar.* markarekin. Horrelakoetan, bistan da, Euskaltzaindia ez da gauza izan forma batu bakar bat eskaintzeko euskaldun guztiei. Beste batzuetan, hala ere, *Heg.* markak esan nahi duena da hitz baten adiera jakin bat Hegoaldekoa dela soil-soilik. Horrelakoetan, jakina, ez dago inongo eragozpenik erabili ahal izateko.

Hitz batek “h.” ikurra (= ‘hobe’) badarama eta, gainera, marka hau euskalki marka batekin ageri bada, “hobe” ohar hori Euskal Herri osoari begira idazten denerako dela esan nahi da. Gainerakoetan, delako hitz hori erabilgarri gerta daiteke, herri aldizkarietan, esaterako. Ikur hori *Heg.* markarekin batera ere ageri da zenbait hitzetan (adibidez, “partidu *Heg.* 1 h. partida [...]”). Hemen esan nahi dena da forma hauetan pausoka joatea dela agian zuhurrena, testu jaso eta formaletatik hasi eta ahozkotik hurbil diren erabilera geroko utziz. “h.” zeinu hori dutenak, hortaz, geroago edo zenbait erregis-trotan aplikatzekoak izango lirateke.

Lehen fase honetan 20.000 hitzeko bilduma bat eskaintzea izan da jomuga. Behar bada, helburu xumea eta apala iritziko dio batek baino gehiagok, baina ondo pentsatzen jarrita, ez da lan txikia.

Une honetan, jadanik hasia da Euskaltzaindia bigarren idatzaldiarekin. Asmoa da bigarren epe honetan *Hiztegia* beste 20.000 hitzekin edo aberastea. Hemen bilduko dira batetik lehen itzulian, sortzen zituzten eragozpenengatik edo zailtasunengatik, sartu gabe utzi zirenak. Bestetik, corpusean maiztasun txikiagoa duten beste hitzak, eta baita premiazkotzat jotzen diren zenbait kultura hitz ere bereziki administrazioaren, komunikabideen eta irakaskuntza munduan erabiltzen eta erabili behar direnak. Honezaz gainera, beste hitz batzuk ere txertatuko dira literatur testuetan bildu ez arren ahozko hizkeratik jasotakoak. Une honetan Euskaltzaindiak horretan dihardu, hitz hauei denei sarrera nola eman erabakitzen. Eta laster hasiko da, lehen idatzaldian bezala, bigarren idatzaldiko zerrendak aztertzen.

HIZTEGIAK ETA CORPUSAK

Orotariko Euskal Hiztegia eta *Hiztegi Batua* burutzeko ezinbestekoak izan dira corpusak. Batetik OEH-ren corpora bera dugu eta bestetik EEBS. Corpus horiek aski mugatuak dira, batez ere beste hizkuntzetan erabiltzen dituzten corpus erraldoekin alderatzen baditugu. Gure literatura ez da hainbestekoa, baina gai hauetan aurrerapen handiak egin direnez, Euskaltzaindia ere pentsatzen hasia da, lagin estatistikoez gainera obra osoekin lan egin behar dela eta corpus handiagoak osatzeko premiaz. Ahozko hizkerari ere sarrera eman beharko zaio.

Euskararen normalizazioaren ikuspegitik gaurko bizitzak eskatzen dituen termino modernoak eta oro har pertsona ikasi batek egunero behar dituen hitzak eskura jartzea guztiz beharrezkoa da. Honek baliabide gehiago eskatuko ditu baina baita estrategia behar bezala planteatzea ere. Eta, gainera, corpus horiek baliagarri gertatuko zaizkigu ez bakarrik hiztegi kontuetarako, baita gramatikagintzarako ere, adibidez.

3.2. Euskal gramatikaren azterketa

Hiztegia garrantzizkoa bada, ez da gutxiago gramatika. Gramatika lanak ere bere-bereak ditu Euskaltzaindiak. Azkueren *Morfologia* ospetsua aipatu beharko genuke lehenbizi, *Euskera* aldizkarian argitaratu zena.



Euskera bilduma.

Honen inguruan sortutako lanak ere hor daude. Altuberren "Observaciones al tratado de "Morfología Vasca", de D. R. M. de Azkue", esaterako (*Euskera* XV, 1934) edo J. Eguskitzaren "Observaciones a algunos puntos de la Morfología Vasca del señor Azkue" (*Euskera* 1931, 62-67). Altuberren *Erderismos* bera ere aipa liteke (*Euskera* X, 1929).

Baina Euskaltzaindiak azken urte hauek arte ez dio, egiazki, eskua ezarri gramatika, bere osotasunean, idazteari. Euskara batua ortografia eta morfologia arloetara mugatu da batez ere. Hori ere gramatika da, jakina. Baina gramatika oso bat idazteko asmoa orainsu arte ez du bideratu Euskaltzaindiak. Egia da Villasanteren lanak hor daudela, adibidez, baina ezin kontatu ahalko ditugu Euskaltzaindiaren lanen artean.

Oraingo, Euskaltzaindiaren lan gehienak bezala, berariazko batzorde baten esku dago Gramatikaren idaztea. Gramatika batzordea 1980az geroztik ari da lanean. Bost liburuki kaleratu ditu dagoeneko Euskaltzaindiak *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin. Hiru iturritatik edan du Gramatika honek: orain arte idatzi diren gramatika eta azterketa monografikoetatik, euskarazko nahiz erdarazkoetatik; euskal testuetatik eta, jakina, batzordea osatzen duten kideen hizkuntza ezagutzatik. Hauen artean euskalki guztietakoak ditugunez, batzordea euskararen ikuspegi zabal bat eskaintzeko moduan dagoela esan daiteke. Hizkuntzaren egitura sinpleenetatik hasi eta konplexuenera iristeko asmoz ekin zion batzordeak lanari. Horrenbestez, lehenbizi perpaus bakunaren eta honen atal nagusien azterketa ekin zion: lehen liburukia izen sintagmari dagokio. Bigarrena aditzari eskaini zaio. Ondoren perpausen arteko lotura aztertzen da: "lokailu" izenez bataiatu diren elementuez dihardu hirugarren liburukiak eta laugarrenak, berriz, juntadura eta juntagailuak ditu aztergai. Bosgarren liburukia kaleratu zuen Euskaltzaindiak 1999an. Hau da menderakuntzari eskainiko zaizkionetarik lehena. Liburuki honetan aditz jokatzeko zenbait mendeko perpaus aztertzen dira: erlatiboak, osagarriak, konparatiboak eta ondoriozkoak, hain zuzen. Perpaus hauek menderakuntzaren zati nagusi bat osatzen dute eta bostehun orrialdetan lau perpaus mota hauen azterketa zabala eskaintzen da, adibide ugariekin batera.

Gramatika batzordearen asmoa da oraindik beste bi liburuki ateratzea: *EGLU VI* izango denak aditz jokatzeko gainerako perpausen azterketa eskainiko du: baldintzako perpausak, kausazkoak, denborazkoak, kontzesiboak etab. Eta azken liburukia, berriz, *EGLU VII*, aditz jokatugabea (-T(Z)E aditz izena eta -TU aditz partizipioa) duten perpaus menderatuena izango da. "Lehen Urrats" hauek, hortaz, zazpi liburuki izango dituzte. Oraindik beste lauzpabost urte beharko ditu Gramatika batzordeak lan hau burutzeko.

Gramatika hau deskriptiboa dela esan behar da. Oraingo, ez du arauemaile izan nahi. Ezingo luke, gainera, horretarako arauaren nondik norakoak

ongi ezagutu behar baitira eta oraindik gauza asko ditugu jakiteko. Gramatika honen helburua euskarak dituen baliabideak aztertzea eta jendearen esku jartzea da. *OEH*-ko corpusaren gainean egiten da lan. Handik atereak dira adibiderik gehienak.

EGLU direlako hauek noizbait Euskaltzaindiaren *Gramatika* izango denaren oinarri dira. Oraingo lanari “lehen urratsak” gaineratu badiogu, lan honen behin-behinekotasuna markatzeko izan da. Lehen liburukia atera zenetik hona badira hamabost urte eta idazkeran bertan nabari dira hamabost urte hauetan gertatu diren zenbait aldaketa. Hori azalari begira. Gaur duela hogeitau urte baino hobeki ezagutzen ditugu gauzak eta gaurko lana zehatzagoa dela esango nuke. *EGLU* hauek, bestalde, zerbait ireki bezala eman dira beti, jendeari bere iritzia eta kritika eskatuz. Horrek ere eragina izango du hurrengo argitalpenean. Hain zuzen, *EGLU* hauek amaitzen direnean, pentsatua du Euskaltzaindiak, lan osoa bildu, berrikusi, osatu, urte hauetan eman diren arauak jaso, eta *Euskal Gramatika Orotarikoa (EGO)* dei litekeenari leku egitea. Hau izango da egiazki Akademiaren Gramatika, hemendik urte batzuetara (zenbatetara?) Euskaltzaindiak euskarari eta euskaraz mintzo den herriari egingo dion oparia.

3.3. Euskaltzaindia eta euskalkiak: Atlas

Euskaltzaindiak euskara batua garatu du eta hori da, segurutik, haren ekarririk garrantzitsuena. Hori zen, hain zuzen, Akademia sortzeko arrazoia nagusia ere. Euskara batua eta euskalkiak, ordea, elkarren lehian dabiltzan bi indar bezala agertzen zaizkigu. Euskaltzaindia bi indar horien artean oreka bila dabilela esan genezake.

Euskaltzaindia euskalkien aldeko agertu da beti. Hala ere, euskara batuak nekez beregana ditzake ahozkoaren goxotasuna, kolorea eta bizitasuna. Villasantek (1970), Vendryes-en adibidea hartuz, honela irudikatzen du hizkuntza idatziaren eta hizkuntza mintzatuaren arteko erlazioa:

“Hizkuntza idatzia izotz geruza gogortua da. Finkatutako hizkuntza da, batua eta mugiezina, literatur erabilerak hala nahi baitu. Izotz blokea ikustean, pentsa liteke hori dela dena, hots, ez dagoela literatura hizkuntza besterik, baina hori engainua litzateke; haren azpian hizkuntza biziak kurrutzen du, beti aldakor. Izotza ur kristaldua den bezala, hala literatura hizkuntza ere bere bilakaeraren une batean geratu eta kristaldu den hizkuntza bizia da, literaturan erabiltzeko forma hori hartu duena. Ahozkoak eta idatziak elkarren gainean duten eragina etengabekoa eta ezinbestekoa da.

Hizkuntza bizia ez da sekula geratzen, hizkuntza idatziak zerbait frenatzen badu ere. Hizkuntza idatzia hezur bihurtua bezala gelditzen da, baina ahozko hiz-

kuntzak bere eragina ezartzen dio eta horrela bere aldaezintasuna ez da erabatekoa izaten". (Villasante 1970, 25)

Aditz batua aurkezterakoan Mitxelenak zioena aipa genezake lehenbizi:

"Euskalkiek badute gure artean, onenean edo gaitzenezan ere, luzaroko bizitokirik, ahoz eta izkribuz. Aspaldidanik, ordea, zenbaitek, gero eta gehiagok, nahi du gurean euskalkien bereizkuntzen gaintetik eta urrutiago legokeen hizkera bat: nahi du eta behar du" (Mitxelena 1973, 7)

Dialektoetan gertatzen diren aldaera nagusiak jasotzeko bide bat dira hizkuntza atlasak. Eginkizun hau hasiera batean Euskaltzainditik kanpo hasi zen gorpuz hartu nahian. 1951n, Madrilera CSIC-en inguruan eta ALPI-delakoaren atal gisa, Euskal Herriko Hizkuntza Atlas bultzatzeaz hitz egin zuten. Baina Mitxelenak urte hartan "Dios mediante, será una realidad dentro de no mucho tiempo" bazioen ere (*BRSVAP*, VII, 591), honela zioen bederatzirte geroago (Mitxelena 1960, 231): "esta empresa recomendada desde antiguo y preconizada en distintos congresos no acaba de ponerse en vías de realización". Eta 1964an berriro honela:

"El proyecto del Atlas lingüístico vasco, una vez que se perdió la esperanza de que su elaboración pudiera tener una conexión directa con los trabajos del ALPI, estuvo durante un decenio en una fase de hibernación, sólo interrumpida por expresiones ocasionales de buenos deseos y por comentarios sobre su urgencia." (Mitxelena 1964, 434-442)

Sarri aipatzen da Atlasaren premia (ik. Etxebarria 1986 kontu honen nondik norakoez). 1965ean A. M^a Etxaidek galdeketa bat hasi zuen Nafarroan. (ik. A. M^a Echaide 1965, 102-105). 1967an Real Sociedad Bascongadoak Euskaltzaindiari euskalkiei buruz batzar nagusi bat antolatzeke eskatzen dio. Azken helburua Hizkuntza atlas bat egitea zen. Gai errepikakorra gertatzen da atlasarena Euskaltzaindiaren bileretan 1967-1970 bitartean. Gero, isilunea dator 1980. urtea arte. Urte honetan, hain zuzen, Euskaltzaindiak bere arduraganduzietakotzat ematen du ahozko euskararen azterketarena. Berako Dialektologia bileretan, besteak beste, Villasantek aipatzen du Atlasaren asmoa (Ik. Villasante 1981, 132). Hain zuzen, bilera hauetan Mitxelenak irakurritako hitzaldi garrantzitsuak balio izan zuen berriro gauzak abian jartzeko. Hitzaldi horretan plan bat zirriborratzen du atlasgauzatzeko. Lehentasanak markatzerakoan, honela mintzo zaigu errenteriarra:

"Es obvio que, a la altura de 1980, la situación de la lengua vasca es crítica. (...)

Una lengua, una "lengua histórica" o idioma es un complejo, (...) de tradiciones lingüísticas históricamente autónomo. En nuestro caso, la autonomía (...) no necesita discusión. Sí la necesitan, en cambio, las tradiciones, que siempre se

transmiten (*traduntur*) siguiendo ciertos canales. Estos modos de transmisión han ido variando a lo largo de la historia, pero la variación se ha producido, por lo general, de manera paulatina. No es éste, sin embargo, nuestro caso en estos momentos. Convencidos de que la lengua no podía sobrevivir si su cultivo era el de una planta silvestre, abandonada a los azares de la supervivencia, pocos primero muchos después pensaron en la escuela, en la *ikastola*, como condición necesaria, aunque no suficiente, para que siguiera viva hoy y en el futuro inmediato. Esto no habría tenido una incidencia tan grave si el nuevo modo de transmisión hubiera sido pensado como complementario del antiguo, de las vías que históricamente podrían considerarse naturales. (...)

Para la geografía lingüística, la cuestión se plantea en estos términos: la lengua vasca (*quod absit*) podría desaparecer como lengua viva, perspectiva en la cual un Atlas lingüístico supondría recoger con la mayor urgencia los restos, cuidadosamente embalsamados, de la difunta. Pero, si por el contrario, sobrevive con una existencia asegurada para decenios o siglos, nunca volverá a ser lo que fue, en un sentido muy radical. Al convertirse la educación (hasta la educación obligatoria) en su promotor y propulsor, cuando antes era su enemiga, y al ser por necesidad la enseñanza medio de transmisión de una forma escrita de la lengua, unificada y normalizada o que tiende al menos a la unificación y normalización, es evidente que la lengua sólo sobrevivirá despojada en buena medida de su variedad, conservada por la fiel transmisión de usos comarcales, locales y hasta familiares. La fusión de las diferencias en una especie de nuevo *melting pot* se ve además acelerada por el trasiego cada vez mayor de gentes de varia procedencia, por el paso a amplias comunidades abiertas de los estrechos grupos cerrados de tiempos todavía nada lejanos.

Esta circunstancia, no menos que la anteriormente mencionada, subraya la urgencia con que debemos apresurar los preparativos para que un Atlas lingüístico vasco, por insuficiente y defectuoso que sea, se convierta cuanto antes (al menos en lo referente a la recogida de datos) en una realidad. No es solamente que ya no podemos llegar a conocer la lengua de algunos puntos (del mayor interés muchas veces, por marginales y por mal estudiados), sino que corremos además el peligro de que las variedades se diluyan y se entremezclen. (Mitzelena 1981, 142-143)

Hainbat jardunaldi eta batzar antolatatu ziren gero. Azken urrats nagusia 1984an etorriko da Ustaritzen egíndako IV Dialektologia Jardunaldietan (*Euskera XXIX*, 1984). Hemen zehazten dira arazo teknikoak, galderak, langile taldea bera, etab. Epea aipatzean, berriz, hamar bat urteren buruan lehenbiko tomoa kaleratzea aurreikusten zen.

Gero, 1985ean beste bilera nagusi bat egingo da Gasteizen “Atlas linguistikoaren galdekizunari buruzko proposamenaren azken azterketa eta onarpena” gai harturik. Horrela, 1986an inkesta-sarea, galdesorta eta metodologia landu eta finkatu ondoren, 1987an hasi ziren inkestagileak galdeketak herriz herri egiten. Euskal Herriko 145 herritan egin ziren galdeketok:

Bizkaian eta Gipuzkoan, bakoitzean 36 herri hautatu ziren, Araban herri batean, Nafarroan 27 herritan, Lapurdin 15etan, Nafarroa Beherean 18 herritan eta Zuberoako 12tan.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 galderaren erantzunak bildu dira. Horietatik gehienak (2.162) lexikoaz; 596 morfologiaz (336 izenaren morfologiaz eta 260 aditzaz). Sintaxia aztergai zuten galderak, berriz, 62 izan ziren eta 37 fonetika sintaktikoaz. Erantzunak eskuz jasotzeaz gainera 4.000 ordu baino gehiagoko grabazioak ere egin ziren 145 herri horietan.

Erantzunak koaderno egokietan jaso ondoren, 1990ean datu-base automatizatu batean biltzea erabaki zen, gaurko teknologiak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz.

Ondoren, jasotako erantzunen emaitzak mapa egokietan erakustea da helburua. Liburu bakoitzean 400 bat mapa bilduko dira jasotako erantzunekin batera. Lehenbizikoa dagoeneko prest du Euskaltzaindiak kaleratzeko, behar diren dirulaguntzen zain. Gero urterik urte joango lirateke gainerako liburukiak kaleratzen, galdera horien erantzun guztiak behar bezala bildu arte.

Mapek informazio grafikoa eskaintzen dute eta forma desberdinak Euskal Herrian zehar nola banatuak ageri diren esango digute. Informazio hori paperean ez ezik, disko konpaktoetan ere eskainiko zaigu. Diskoetan datu basea eta mapak eskainiko dira.

Atlasak euskararen nolabaiteko argazki bat eskainiko digu. Bistan da bi mila eta bostehun galdera horietan ez dela biltzen euskarari buruzko informazio guztia, baina bai aldaera nagusien nondik norakoa. Eta geroko azterketetarako ere hor geldituko da bildurik gaurko euskararen ispilu antzeko hori. Grabatutako ahozko testuak ere bildurik gelditu dira noizbait horren azterketari norbaitek ekin nahi izanez gero. Horra Euskaltzaindiak euskara bere hizkuntzat daukan herriari eskaini dioen zerbitzuetako bat. Beste leku batzuetan unibertsitateek edo bestelako ikerketa erakundeek bultzatu dituzte horrelako lanak. Hemen Euskaltzaindia izan da lan honi ekin diona eta bera izango da burutuko duena ere, Herri aginteen dirulaguntzarekin, noski. Euskaltzaindiaren esparrua Euskal Herri osoa delarik, eta herri hau administrazioaren aldetik sakabanatua ageri zaigunez, behar bada berari zegokion lantegi hori eta bera izan da, azkenean, lana bere gain hartu duen erakundea.

3.4. Euskaltzaindiaren beste iker lerro batzuk

Aipatutako hiru arlo nagusi horiez gain, Euskaltzaindiaren ikerketak beste zenbait arlotan ere ari dira gauzatzen. Onomastika arloan, adibidez, edo Literaturaren nahiz ahoskeraren arloan.

ONOMASTIKA

Araugintzak besarkatzen duen arlo nagusi bat da Onomastikarena. Hasierako Euskaltzaindia bera ere arduratu zen toponimiaz. 1920ko agiri batean honela ageri da:

"Hiztegi atontzeko Batzorde bat jarri zan, ea beste bat Lur erestirako (Toponimia).

Lehenengoaren kideak, Azkue, Broussain eta Olabide autatuak izan ziran; ta bigarrenarenak, Olabide ta urgzle diran Oleaga ta Odon Apraiz" (Euskera 1920, 66)

Orainsu arte ofizialtasunik izan ez duen hizkuntza batek arautze premia larria du bai toki izenei bai pertsona izenei dagokienetan.

Pertsona izenei dagokienez, ponte izendegia dela, deitura izendegia edo pertsonaia historikoen izendegia dela, azterketa lan handia eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Erantzukizun horri aurre egiteko, berariazko batzorde bat eratua du eta dagoeneko hainbat lan dira kalean. Laster izango da, bestalde, kalean *Ponte izendegia*, jendearentzat hainbesteko garrantzia duena erregistrotzen eta abarren aurrean.

Toki izenen forma ofiziala ere finkatu beharra dago. Lehen ofiziala zen bakarria erdal deitura bazen, orain gauzak, legez, beste modu batera dira. Normalizazioaren premia agerikoa da. Euskaltzaindia, gainera, "aholkuemaile ofiziala" denez, egiteko garbia dagokio arlo honetan. Exonimoen forma finkatzea ere behar beharrezkoa da.

Kontura gaitezen, azkenik, inon izatekotan hemen gertatzen dela beharrezkoen Herri aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana. Elkarlan honen erakusgarri izango liriateke EUDEL-ekin edo Eusko Jaurlaritzarekin berarekin abian diren hitzarmenak, maila desberdinetako toponimia aztertu eta finkatzeko.

LITERATURA

Literatura batzorde bat ere badu Euskaltzaindiak, bi arlotan lan egiten duena: batetik herri-literatura mailan diharduena eta hainbat batzar interesgarri antolatzen dituena, eta bestetik literatura ikerketari emana. Bigarren honetan Literatura Hiztegi bat prestatzen ari dira, terminologia lantzeaz gainera, literatura teoriaren euskarazko aurkezpen bat eskainiko duena.

AHOSKERA

Ahoskera kontuetan araugintza bultzatzea ez da samurra. Hala ere, Euskaltzaindiak egin ditu zenbait saio arlo honetan. Ahoskera batzorde bat

ere izan zen indarrean zenbait urtez, gaur lanean ari ez den arren. Batzorde horrek komunikabideetako eta irakaskuntza munduko zenbait arduradunekin lan egin du eta lan horren emaitza izan zen, esaterako, ahoskera zainduaz emandako araua, non ahozko hizkuntzaren maila formaletan erabili beharreko bidea markatzen den. Ahoskeraren aniztasunak araua malgua izatea eskatzen du eta hala formulatua dator arau hori.

4. EUSKALTZAINDIAREN GAURKO ERRONKAK

4.1 Euskara batua eta euskara bizia

Goian jaso dugun Mitxelenaren testu luze horretan argi ikusten da batasunarekin hizkuntzak alde batetik irabazten duena beste alde batetik galdu egingo dela: hizkuntzak irauten badu menderik mende, sekula ez da izango izan zena. Hezkuntza bilakatu delarik haren sustatzaile, lehen haren etsaia zelarik, eta irakaskuntza, nahi eta ez, hizkuntzaren forma idatzi, bateratu eta normalizatu baten transmititzaile izanik, argi dago hizkuntzak bere aldakortasuna hein batean behintzat galduko duela. Nolanahi ere, Euskaltzaindian forma estandarren eta aldaeren arteko harremanaz bada kezka. Euskaltzaindiak bere garaian euskara batuaren borroka irabazi bazuen, orain ahozko euskararen borroka du irabazteko. Horrela uste du gaur zenbait jendek. Agian arrazoi dute. Arazoa da belaunaldi berriek, euskara eskolan bai baina etxean eta kalean nekez eta urri erabiltzen dutenek, euskara kaxkarra, “ortopedikoa” –norbaitek inoiz erabili duen terminoa erabiltzeko–, darabilte la, inoizkoa eta inongoa ez dena, erdarakadaz josia, etab. Horri aurre egin behar zaio, zaila bada ere. Arazoa eztabaida– eta gogoeta-gai bihurtua dugu azkenaldi honetan, dela eskola giroan (ik. Maia 2000), dela egunoroko bizi-tzako beste hainbat arlotan. *Jakin* aldizkariak ere 1993an ale berezi bat eskaini zion kontu honi. Alde honetatik, interesgarri iruditu zait L. M. Larringan irakaslearen lerro hauek hona ekartzea:

“Hizkera idatzian ziren eta diren estualdiei behar bezala erantzuteko ekin zaio estandarizazioari. Baina, ahozkoa erabat kanpo geratu da; kanpo ezezik, neurri handi batean, baztertua eta “juzgatua” ere bai. Egia esango bada, hizkera idatziaren inguruan egin dira egin izan diren ikerketa gehienak, eta hantxe dute, seguruenik, “ekarpen” edo gerorik ahulena euskalkiek. Ahozkoaren morroitzera erabatekoa. Ia-ia ez dugu ahozkoaren irakaskuntzarako metodorik ere. Lanak izango ditugu gauzak bere onera ekartzen eta orekatzen. Eta honek bereziki ukitzen du euskalkien esparrua, hots, erabilera ez-estandarrik. Espazio propioagoak edo, zehazteke daude. Badirudi gerorako baizik (sic.) berandurako utzi dela ahozko euskara” (Larringan 1993, 36-37)

Jakina, hau Maiak dioenarekin lot dezakegu:

“Irakasleen prestakuntza ere faktore erabakigarria da edozein proiektu aitzinera ateratzeko. Gure iritzian irakasle guziek euskara batua jakin behar lukete;

egokiena litzateke, halaber, euren lana eginen duten euskalkia ere menderatzea ahalik eta egokienik; aurreko bi baldintza horiei beste bat erantsiko genieke: euskalkiarekiko edo eskualdeko hizkerarekiko sentiberatasuna. Ez da hori benetako egoera, hala uste dugu behinik behin. Beraz, irakaslearen prestakuntza hobetu beharra suertatzen bada, bi ildotan ikusten dugu bideratu beharra: bertako berbetaren ezaugarrien berri izan dezan bitartekoak eskaini behar zaizkio (adibidez, tasunen zerrenda bat, eta nola idatziratu behar liratekeen), eta tokiko euskalkiarekiko sentiberatasuna lantzea, halako moldez non hizkuntz ereduaren arteko aurkaritza barik elkarren osagarritasuna azpimarratuko litzatekeen (honek ekar ditzakeen –ekarriko dituen– hibridazio fenomenoek ez lukete lehen mailako kezka sortu behar, gure idurikoz).” (Maia 2000, 583).

Argi dago arazo honek Euskaltzaindiaren lan esparrua gainditzen duela. Baina horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiaren kezketariko bat ez denik hori. Hala ere, Euskaltzaindiaren lana euskararen gorputza prestatzea, arautzea eta literatura-hizkuntza normalizatu bat sortzea da. Horrela, euskara aberastea eta egokitzea da, batez ere, Euskaltzaindiaren lana. Hiztegi batua-ren kasuan, adibidez, hori garbi-garbi ikusten da. Hurrengo idatzaldian nabar-menago gertatuko da, gainera. Gramatikagintzan ari delarik ere gauza bera nabarmentzen da: tradizioa ongi ezagutuz, gaur behar dugun tresna egokitu.

4.2. Gizartearen eskakizunak

Aipa dezadan azkenik Euskaltzaindiaren lana kanpotik nola ikusten den, zer eskatzen zaion Akademiari euskal gizartearen zenbait puntutatik.

Zenbaitentzat (ik. Irazabalbeitia 1998), Akademiaren lana txalogarria bada ere, euskararen corpusaren estandarizazioa eta arauketa, gizarteak eta euskalgintzak eskatzen duen baino motelago doa. *Hiztegi Batua*ren kasuan, 20.000 sarrerrako zerrenda osatzeko zortzi urte larregi dira. Gramatikaren kasuan Euskaltzaindiak berak ere ikusten du gauzak nahi baino motelago doazela.

Hau dela eta, egitura aldatzeko aholkua ematen zaio Akademiari. Izan ere, oraingo egitura funtsean hizkuntza aspaldi normalizatua duten akademiarena omen da. Egitura desegokia XX. mendearen hondarrean egoera diglosikoan dagoen hizkuntza baten normalizazioak eta batasunak dituen premiei erantzuteko.

Ausartegia izango nintzateke Euskaltzaindiaren egitura egokia ala desegokia den hemen eztabaidatzen hasiko banintz. Dena dela, kontu hori eztabaidagarria da, eta jendearen iritzia Euskaltzaindiarentzat gogoan hartzekoak dira beti.

Beste kritika bat edo da baliabide-ekasiasia. Euskaltzain gehienak beren eguneroko lanbidetik kanpo aritzen baitira.



Gaur egungo Euskaltzain osoak.

Egoera honen ondorioz, etsipena sortzen omen da euskaraz lanean diharduten profesionalen artean, etengabeako ikasi/desikasi prozesu batera behartuak aurkitzen baitira. Horrela, beren hizkuntza-gaitasunari buruzko zalantza etengabeak eraginik, deseroso eta artega sentitzen omen dira. Ildo beretik, behin-behinekotasun etengabea gertatzen da: “zerbait idatzi eta handik gutxira zahartua gelditzeko arriskua” omen dute euskaraz idatzitako produktuek, horrela kalte ekonomikoak eraginez.

Eraginkortasuna handitzearen atzetik dabil Euskaltzaindia. Azken bi urte hauetan ahalegin berezia egin du, adibidez, informatika baliabideak berritze-ko eta osatzeko. Honen helburua ez da lanari etekin handiagoa ateratzea baizik

Euskaltzaindiaren diru iturri nagusiak bertako Herri aginteez ezarritakoak dira alde batetik, eta Madrileko Hezkuntza Ministerioak ematen dituenak bestetik. Diruak beti eskas izaten dira beharko liratekeen premia guztietarako. Aipatu artikuluan diru iturri ugariagoak lortzeko errezeta ere eskaintzen da:

“Euskaltzaindiak gizartean duen ospe eta tokia baliatuz merkataritza-politika oldarkorragoa obratu beharko luke diru-iturri pribatuak lantzeko eta lortzeko. Horretarako kudeaketa enpresarialagoa eta marketin-ukitu handiagoarekin beharko luke. Jardunbide horrek egitura-aldaketak ekarriko lituzke” (Irazabalbeitia 1998, 189)

Gehi dezagun geure aldetik Euskaltzainda fundazio bat abian jarri nahian dabilela, *Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa*, bide honetatik diru iturri osagarriak eskuratzeko asmoz, horrela premia handiko proiektu berriei aurre hobeki egin ahal izateko. Fundazio hau, bestalde, gizartearen eta Akademiaren arteko lotunea izango litzateke.

Euskararen Aholku Batzordeak 1998an onartutako *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* delakoan, euskararen indarguneak eta ahuleziak jasotzen dira alde batetik, eta hurrengo hamarkadarako erronka nagusiak azpimarratzen, bestetik. Indarguneen artean aipagarri gertatzen da plan horren egileentzat Euskaltzaindiaren lana:

"Euskarak berak ere eguneratu eta egokitu beharra du, jakina, gaurko premietara eta arlo nahiz eremu berrietara. Izan ere, eguneroko jardunean euskara lan-tresna eta komunikazio-hizkuntza dutenen beharra handia da. Hori dela eta, euskal lexikoa bateratzeko eta finkatzeko lan handia egin da Euskaltzaindiaren gidaritzapean, eta egiteke dagoena burutzeko, berriz, baliabideak jarri dira. Orain arte burutu den guztia informatizaturik da, bestalde. Euskararen corpusaz arduratzen diren erakundeek eta elkarteek duela urte gutxi arte ez zuten gaitasun-maila erdietsi dute, beraz.

Hala ere, norberaren hizkera ez da baztertu behar eguneroko bizitzatik hizkuntza zuzenagoa eta egokiagoa erabiltzen baitu nork bere euskalkian. Besteak beste, ez dezagun ahantz, euskararen eta euskarazko baliabideen kalitatea hobetzeko apustua irabazi behar da urteotan." (Hizkuntza Politikako Sailordetza 1999, 36. orr.)

Ahuleziak aipatzen hasita, berriz, honela formulatzen ditu, guri dagokigunez, *Plan* honek:

"Euskaldunen kopurua gehitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki. Bakoitzaren hizkera edo euskalkia zaintzeko eta hobetzeko ezer gutxi egiten da, besteak beste, eskoletako irakasleek eta euskara-irakasleek ez baitiete tokian tokiko hizkuntz ereduak, euskalkiei eta ahozkoari dagokien garrantzirik eskaintzen. Zuzentasun-egokitasun-jatortasun auzia, dena den, normalkuntzaren menpe dago neurri handian.

Orobat, euskara ondorengoetartzeko gaurko haur eta gazteek izango duten garrantzia ikusita, ez zaio arreta handiegirik eskaintzen haur eta gazteeentzat egiten diren liburu eta irakurgaietako euskarari. Kale-erdaran moda-modan jartzen diren hitz eta esaldiek ere ez dute euskarazko ordainik, eta barra-barra sartzen dituzte erdarazkoak euskaraz ari direnean ere. Beraz, plangintza behar da ahozko hizkeraren estandarizaziorako.

Hiztegiaren zenbait arazo konpontzeko, berriz, terminologi lana oso sakabaturik dago: lehentasunak ere finkatzeke daude. Corpora osatzeko eta hobetzeko egin den lana bera ere ez dago ikertzaileen eskuera, nahiz eta dena dagoen

euskarri elektronikoan. Ez dago 16 urte arteko hezkuntzan erabiltzeko hiztegi arau-emailerik ere..

Euskararen kalitatea hobetzeko ezinbestekoak dira baliabide hauek guztiak". (41-42)

Datozen hamar urteetako erronka nagusiak aipatzean, berriz, honela formulatzen da corpus-plangintzaren eta hizkuntzaren kalitatearen gaia:

"Irakasleak etengabe prestatu euskara batuaren eta euskalkiaren artean zubiak egiteko, eta euskalkietan bizi-bizirik dauden egitura eta erregistro diferenteen ereduak irakatsi ikasleei, tokian tokiko hizkerara egokituz.

Etxeko hizkuntza aintzat hartu, naturaltasuna lortzeko.

Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako.

Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu, euskaltegietako irakasleentzat, komunikabideetako esatari eta kazetarietarako.

Informatizatuta dauden euskararen corpusak modu erosoan erabiltzeko aukera eskaini.

Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, ahokutaldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar" (58)

Batean eta bestean aipatzen diren eskakizunei Euskaltzaindia jadanik erantzuten ari dela esango nuke, ahal duen neurrian. Batzuetan, dagoeneko nahiko gauzatuak daude erantzunak. Beste batzuetan gauzatzeko bidean.

Dena dela, ohar bat egin behar dela uste dut: hizkuntza kontuetan ere presaka ibiltzea –"presa" kontzeptua bera guztiz erlatiboa den arren– ez da batere ona. Hiztegi eta terminologia kontuetan, adibidez, gaur ohartzen gara duela hamar-hamabost urteko proposamen askok eta askok gutxi balio dutela. Horrek esan nahi du gauzei, ardoari bezala, ontzen utzi behar zaiela. Egia da baliabide gehiago eskuratuz gero zenbait lan aurrera daitekeela: *Hiztegi batuaren* kasuan, esaterako, arlo berrietan sartu gabe ere, askoz gehiago aurreratuko genuke euskaltzainek berek eta batzordeek ordu gehiago eman balezate lan horretan. Gauza bera esan liteke Gramatikari buruz ere. Baina honek ere badu bere muga: ez dezagun pentsa jendea eta orduak gehitu ahala, gauzen ezagutza proportzio berean gehituko dela. Beraz, oreka bilatu behar.

Informatizatuta dauden corpusak jendearen eskuetan jartzeko asmoa du aspalditik Euskaltzaindiak eta erabakia ere bai. Dauden oztopoak –batzuk legezkoak, beste batzuk teknikoagoak– gaintuz gero, laster izango dira kontsultagai zenbait corpus, dela CD-ROM bidez, dela “sarean” bertan. Gaurko euskararen corpus zabal bat osatzeko asmoa ere badu Euskaltzaindiak, idazleen et argitaletxean laguntzarekin, etorkizunean.

Telefono linguistikoa dela eta, Euskaltzaindiak dagoeneko ekin dio egitasmoa gauzatzeari. Urteberriarekin martxan izango dela espero dezakegu JAGONET delakoa, non profesionalek, irakasleek, idazleek eta herritar orok, eskubidea izango duen bere galderak egiteko. Euskaltzaindiak, ahal den mailan, erantzungo die galdera horiei. Baina hemen ere, finantzabidea ziurtatu beharra dago, zeren galderak ugaltzen badira baina programa diruz hornitzen ez bada, gaizki ibiliko gara. Euskara biziberritzeko planean eginkizun hori aipatzen bada, pentsatzekoa da Herri aginteek ere ahalegin berezia egingo dutela diruz hornitzeko. Hortaz, laster izango dute euskararen langileek proiektu hau ere egia bilakatu.

Hizkuntzaren kalitatea bermatzeko eta gaurko euskaldunak dituen premiei behar bezala erantzuteko, gauza asko hobetu behar dira. Euskaltzaindia horretan da. Baina umiltasun piska bat ere behar dugu euskaldun bezala: gauzak dauden bezala daude eta diren bezalakoak dira. Makina bortxatzea okerrago izan liteke. Dena dela, Euskaltzaindiak argi dauka euskal alorrean lanean ari diren langile gero eta ugariagoekin lan egin behar duela, haiekin lankidetzan. Jadanik badira horrelako lanak. *Orotariko Euskal Hiztegia* edo *Atlasa*, esaterako, horretarako propio ezarritako langile talde baten esku daude. Hiztegi kontuetarako edo EEBS corpora prestatzeko, adibidez, UZEI-ren laguntza du Euskaltzaindiak. Onomastika arloan ere bada lantalderik, Gasteizko toponimia aztertzen ari dena adibidez. Gerora ere, argi dago beste zenbait erakunderekin eta abarrekin lan egin beharko duela Akademiak: unibertsitateekin, profesional taldeekin, etab. "Corpus plangintza" deitzen den hori Euskaltzaindiari egozten zaionez baina eginkizun den guztia Akademiak berak egitea ezina denez, gidaritza zuzen eramatea ere ez litzateke gutxi. Sorrerartik beretik hartu zuen goiburua, EKIN ETA JARRAI, ez ahal da alferrik izango!

BIBLIOGRAFIA

- Arana Martija, J. A. (1990), "Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat", *Euskera* XXXV, 15-33.
- Arejita, A. (1993), "Bizkai euskararen ekarria batasunera", *Jakin* 76, 63-77.
- Aurrekoetxea, G. (1986), "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA): Inkesta metodología eta ezezko datuak", *Euskera* XXXI, 413-424.

- Azkue, R. M^a (1934-1935), "Gipuzkera osotua", *Euskera* XV (1934), 1-150; XVI, 151-184.
- Azkue, R. M^a (1923-1925), "Morfología Vasca", *Euskera* IV (1923); V (1924); VI (1925), 805-930.
- Campion, A. & P. Broussain (1922), "Informe de los señores académicos A. Campion y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera", *Euskera* 1922, I, 4-17.
- Charritton, P. (1986), *Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkar-
rridazketa*, Iker-4, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etxaide, A. M^a (1984), *Erizkizundi Irukoitza. Triple cuestionario. Triple questionnaire*, Iker, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etxaide, A. M^a (1965), "Encuestas preliminares para el Atlas lingüístico vasco", *Actes du X^e Congrès International des Linguistes* II, 102-105).
- Etxebarria, J. M^a (1986), "Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren historiarako", *Euskera* XXXI, 375-412.
- Eleizalde, K. (1919), "Metodología para la restauración del euzkera", *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbo 1919, 428-439.
- Euskaltzaindia (1920), "Euskaltzaindiaren batzarrak", *Euskera* 1920, 37-80.
- Euskaltzaindia (1976), *Sobre la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia*, Servicio de Publicaciones del Ministerio de Educación y Ciencia, Madrid.
- Euskaltzaindia (1977), *Euskararen liburu zuria*, Bilbao.
- Euskaltzaindia (1984), *Euskaltzaindiaren historia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1985), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I*, Iruñea.
- Euskaltzaindia (1987a), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I (Eranskina)*, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1987b), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1987c), *Hitz-elkarketa/1*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1990), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak III (Lokailuak)*, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1991), *Hitz elkarketa/3*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1993), "Euskal Herriko hizkuntz atlasa: galdesorta", *Euskera*
- Euskaltzaindia (1994), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak IV. Juntagailuak*, Bilbo.
- Euskaltzaindia (1999), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak V (Mendeko perpausak-1)*, Iruñea.
- Goenaga, P. (1999), "Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia: 80 años de trabajo por la normalización del vasco", *Arbor* 641, T. CLXII, 77-98.
- Haritschelhar, J. (1996), "L'Académie de la Langue Basque/Euskaltzaindia comme exemple d'un développement institutionnel transfrontalier", in Alain Viaut (1996), *Langues d'Aquitaine. Dynamiques institutionnelles et patrimoine linguistique*, Editions de la Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine.

- Hizkuntza Politikarako Sailordetza (1999), *Euskara biziberritzeko plan nagusia*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Irazabalbeitia, I. (1999), "Euskara eta Euskaltzaindia versus 2000", *Jakin* 114, 183-196.
- Larringan, L. M^a (1993), "Euskara batua eta euskalkiak", *Jakin* 76, 11-39.
- Maia, J. (2000), *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*, EHU-ko tesi argitaragabea.
- Mitxelena, K. (1960), "La actividad lingüística en el campo vasco", *Communications et rapports du Premier Congrès International de Dialectologie Général*.
- Mitxelena, K. (1968), "Euskararen batasun bideak", in Mitxelena 1988, 972-983.
- Mitxelena, K. (1973), "Aditz laguntzaile batua. Zenbait argitasun eta argibide", *Euskera* 18, 1973, 5-8.
- Mitxelena, K. (1978a), "Euskararen bide luze bezain malkarrak", *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, Anejos del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" 10, Donostia, 1011-1023.
- Mitxelena, K. (1978b), "Arantzazutik Bergarara", in Mitxelena 1988, 984-990.
- Mitxelena, K. (1978c), "Euskararen bide luze bezain malkarrak", in Mitxelena 1988, 1011-1023
- Mitxelena, K. (1981a), "Encuestas lingüísticas en el País Vasco", *Euskera* XXVI, 1981-1, 133-145.
- Mitxelena, K. (1981b), "Hondarribiko bilkurak direla eta", *Euskera* XXVI, 1981-1, 123-126.
- Mitxelena, K. (1987a), "Orotariko Euskal Hiztegiaren inguruan", *Euskera* XXXII-1, 127-129.
- Mitxelena, K. (1987-), *Diccionario General Vasco/Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia-Mensajero-Desclée de Brouwer, Bilbo.
- Mitxelena, K. (1988), *Sobre historia de la Lengua Vasca*, Anejos del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" 10, Donostia.
- Oihartzabal, B. (1993), "Euskara batuari Iparraldetik behatuz", *Jakin* 76, 79-89.
- Sagarna, A. (1989), "Egungo euskaaren bilketa-lan sistematikoa (EEBS)", *Jakin* 54, 213-226.
- Sarasola, I. (1997), *Euskera batuaren ajeak*, Alberdania, Irun.
- Villasante, L. (1970), *Hacia la lengua literaria común*, Edit. Franciscana Aranzazu, Oñate. Zuazo, K. (1988), *Euskararen batasuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Villasante, L. (1980), *La H en la ortografía vasca*, Edit. Franciscana Aranzazu, Oñate. Zuazo, K. (1988), *Euskararen batasuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Villasante, L. (1981a), "Gramatika lanak koordinatzeko bilera", *Euskera* XXVI, 115-121.

Villasante, L. (1981b), "Dialektologi bilerak", *Euskera* XXVI, 1981, 132).

Zalbide, M. (1987), "Lexiko-berrikuntzaren inguruko zenbait ohar-azalpen", *Euskera* XXXII, 217-226.

Zuazo, K. (1988), *Euskararen batasuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Zuazo, K. (1993), "Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa", *Jakin* 76, 41-62.

Zuazo, K. (2000), *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun.